



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2012IPLE0005

Eguna: 2012-05-31

Ordua: 19:00-20:35

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Agin Rezola Laburu	BILDU
- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Isabel Otero Glorie	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

Bertaratu ez direnak

- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
------------------------------	-------

Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
Astigarraga Lantzen, S.A. elkarteko 2011ko likidazioaren onarpen-dekretua jakinaraztea	1	Dar cuenta del decreto de aprobación de la liquidación 2011 de Astigarraga Lantzen, S.A.
Kreditu-geldikinen inkorporazioaren onarpena jakinaraztea	2	Dar cuenta de la aprobación de la incorporación de remanentes de crédito
Etxe-hondakinen Ordenantzari aldaketa zehatza. Hasierako onarpena	3	Modificación puntual de la Ordenanza de basura doméstica. Aprobación inicial
1-2012 kreditu gehigarria. Hasierako	4	Crédito adicional 1-2012. Aprobación inicial



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

onarpena		
Pelotari kalea eta Donostia Ibilbidearen arteko bidegurutzean biribilgune berria egiteko proiektuaren obrako 1. fasea:	5	Obra de ejecución de la primera fase del Proyecto de nueva rotonda en el cruce entre Pelotari kalea y Donostia Ibilbidea:
5.1. Proiektua onartzea		5.1. Aprobación proyecto
5.2. Administrazio zehatzen baldintzen agiriak onartzea		5.2. Aprobación pliego de cláusulas administrativas particulares
5.3. Gastua baimentzea		5.3. Autorización de gasto
2010/10/15eko epaia betetzeko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa zehatza, HJU 5.1 –Etxeberri-. Alegazioak eta behin-behineko onarpenera proposatu.	6	Modificación puntual P.G.O.U. de Astigarraga, referida a la UEU 5.1 – Etxeberri-, en cumplimiento de la Sentencia de 15/10/2010. Contestación a alegaciones y aprobación provisional
Mozioa: Nabarralde	7	Moción: Nabarralde
Mozioa: Astigarraga Zero Zabor	8	Moción: Astigarraga Zero Zabor
Informazio, eskariak eta galderak	9	Información, ruegos y preguntas

Esan-eginak eta erabakiak

Atzo, pertsonaleko informazio batzordea bildu zen 2012ko plantilla eta lanpostu-zerrendaren aldaketa aztertzeko, arkitekto-lanpostuari dagokionez, eta alkateak osoko bilkurari eskatu dio batzordeak egindako irizpena eguneko aztergaien zerrendara biltzeko.

Udalbatzako kideek, aho batez, puntu hori eguneko aztergaien zerrendara biltzea erabaki dute, 7. aztergai gisa, mozioen aurretik.

El alcalde propone al Pleno la inclusión en el orden del día el dictamen de la comisión informativa de personal celebrada ayer relativa a modificación de plantilla y RPT 2012 en lo relativo al puesto de arquitecto.

Los miembros de la Corporación, acuerdan, por unanimidad, la inclusión de este punto en el Orden del Día como punto 7º, previo a las mociones.

1. Astigarraga Lantzen, S.A. elkarteko 2011ko likidazioaren onarpen dekretua jakinaraztea

Alkateak Osoko Bilkurari 391/2012 dekretuaren berri eman dio, Astigarraga

1. Dar cuenta del decreto de aprobación de la liquidación 2011 de Astigarraga Lantzen, S.A.

El alcalde da cuenta al Pleno del decreto 391/2012, por el que se aprueba la



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Lantzen S.Ari dagokion likidazioa onartzen duena.

liquidación 2011, correspondiente a Astigarraga Lantzen S.A.

2. Kreditu-geldikinen inkorporazioaren onarpena jakinaraztea

Alkateak Osoko Bilkurari 247/2012 dekretuaren berri eman dio, 2011ko kreditu-geldikinak 2012ko ekitaldian txertatzea ahalbidetzen duena, honako hauei jarraiki:

1. Kontu-hartzailearen txostenaren arabera 2012ko ekitaldira txertatzea 631.884,02 euro.
2. Finantzazioa 2011ko altxortegi geldikinen bidez gauzatuko da.
3. Dekretu honen berri osoko bilkurari jakinaraztea.

3. Etxe-hondakinen Ordenantzari aldaketa zehatza. Hasierako onarpena

Alkateak maiatzaren 21eko ogasun-batzordearen irizpena aurkeztu dio Osoko Bilkurari, honako hau proposatuz:

1. Etxe-hondakinen ordenantzaren aldaketa zehatzari hasierako onarpena ematea.
2. Espedientea jende aurrean jartzea, 30 eguneko epea bermatuz, erreklamazio edo iradokizunak egin ahal izateko. Aipatutako epean ez badira egiten, espediente behin betiko onartua bilakatuko da.

Zorione Etxezarraga zinegotziak zera adierazi du, batzordean hartu duten jarrerari jarraiki, abstenitu egingo direla, ez dutelako batere argi ikusten konpostajearen ardura dutenen kontrolerako aurreikusitako kontrol- eta kudeaketa-sistemen funtzionamendua.

2. Dar cuenta de la aprobación de la incorporación de remanentes de crédito

El alcalde da cuenta al Pleno del decreto 247/2012 por el que se procede a la incorporación de remanentes de créditos del 2011 al ejercicio 2012, conforme a:

1. Incorporación de 631.884,02 euros al ejercicio de 2012, según el informe del interventor.
2. La financiación se llevará a cabo utilizando el remanente de tesorería de 2011.
3. Dar cuenta al pleno de este decreto.

3. Modificación puntual de la Ordenanza de basura doméstica. Aprobación inicial

El alcalde presenta al pleno el dictamen de la comisión de hacienda de 21 de mayo en el que se propone:

1. Proceder a la aprobación inicial de la modificación puntual de la Ordenanza de basura doméstica.
2. Someter el expediente a la exposición pública por el plazo mínimo de 30 días, reseñando que caso de no formularse reclamaciones ni alegaciones devendrá el acuerdo de aprobación inicial en definitivo.

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga señalando que de acuerdo a su postura en la comisión se van a abstener dado que no ven claro los sistemas de control y gestión que se prevén para el control de los que realizan el compostaje.



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Irizpena bozkatu eta onartu da, Bilduren aldeko 6 botorekin, EAJ/PNVren 2 abstentziorekin eta H1en kontrako 2 botorekin.

Sometida a votación el dictamen es aprobado con 6 votos a favor de Bildu, 2 abstenciones de EAJ/PNV, 2 votos en contra de H1.

4. 1-2012 kreditu gehigarria. Hasierako onarpena

Alkateak maiatzaren 21eko ogasun-batzordearen irizpena aurkeztu dio Osoko Bilkurari, honako hau proposatuz:

1. Kreditu-aldaketen espedientearen hasierako onarpena 1-2012 kreditu gehigarriko modalitatean, guztizko zenbatekoa 512.909,39 euro izanik.
2. 21/2003 Foru Arauan aurreikusitako ondorioetarako, espedientearen jendaurrean jarriko da 15 eguneko epean, argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, alegazioak edo iradokizunak egiteko. Horrelakorik egiten ez bada, hasierako onarpen-erabakia behin betikoa izango da, beste akordiorik egin beharrik gabe.

Alkateak zera adierazi du, finantziarioa geldikinaren kargura egitea aurreikusi dutela, baina Aldundiarekin hitzarmena egitea espero dutela, eta, horri esker, biribilgunearen obren zati baten finantziarioa lortuko dutela, geldikinaren erabilera murriztu ahal izateko.

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

5. Pelotari kalea eta Donostia Ibilbidearen arteko bidegurutzan

4. Crédito adicional 1-2012. Aprobación inicial

El alcalde presenta al pleno el dictamen de la comisión de hacienda de 21 de mayo en el que se propone:

1. Proceder a la aprobación inicial del expediente de modificación de créditos en la modalidad de crédito adicional 1-2012 por importe total de 512.909,39 euros.
2. A los efectos previstos en el artículo 15 de la Norma Foral 21/2003 se hace público el expediente por el plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de su publicación para formular alegaciones o sugerencia. Caso de no formularse alegaciones al acuerdo de aprobación inicial devendrá en definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo.

El alcalde señala que la financiación está prevista con cargo al remanente pero que esperan realizar un convenio con Diputación por el que se obtendrá una financiación parcial para la obra de la rotonda, con lo que se reduciría la utilización del remanente.

Sometida a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

5. Obra de ejecución de la primera fase del Proyecto de nueva rotonda



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

biribilgune berria egiteko proiektuaren obrako 1.fasea:

Alkateak maiatzaren 21eko ogasun-batzordearen irizpena aurkeztu dio Osoko Bilkurari, honako hau proposatuz:

5.1. Proiektua onartzea

Astigarragako Pelotari kalea eta Donostia Ibilbidearen arteko bide gurutzean biribilgune berria egiteko proiektua onartzea.

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

5.2. Administrazio zehatzen baldintzen agiriak onartzea

Alkateak maiatzaren 21eko ogasun-batzordearen irizpena aurkeztu dio Osoko Bilkurari, honako hau proposatuz:

1. Pelotari kalearen eta Donostia ibilbidearen arteko bidegurutzean biribilgune berria egiteko proiektuko lehen fasearen kontratazioa arautzeko administrazio baldintza zehatzen agiriak onartzea.

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

5.3. Gastua baimentzea

Alkateak maiatzaren 21eko ogasun-batzordearen irizpena aurkeztu dio osoko bilkurari, onar dezan, honako hau proposatuz:

1. 733.545,22 euroko gastua onartzea pleguan zehazten diren kontu-sailen

en el cruce entre Pelotari kalea y Donostia Ibilbidea:

El alcalde presenta al pleno el dictamen de la comisión de hacienda de 21 de mayo en el que se propone:

5.1. Aprobación proyecto

Aprobar el proyecto de nueva rotonda en el cruce entre Pelotari kalea y Donostia Ibilbidea.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

5.2. Aprobación pliego de cláusulas administrativas particulares

Se somete al Pleno la aprobación del dictamen de la comisión de hacienda de fecha 21 de mayo en el que se propone:

2. La aprobación del Pliego de cláusulas administrativas particulares para regular la contratación de la primera fase del proyecto de nueva rotonda en el cruce entre Pelotari kalea y Donostia Ibilbidea.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

5.3. Autorización de gasto

Se somete al Pleno la aprobación del dictamen de la comisión de hacienda de fecha 21 de mayo en el que se propone:

- 1.- Proceder a la autorización del gasto de 733.545,22 euros conforme a las partidas concretadas en el Pliego y



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

arabera, beti ere baldintzatua 1-2012 kreditu gehigarria behin betiko onartzea.

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

Alkateak nabarmendu du lizitatu beharreko obra oso garrantzitsua dela, oso zenbateko handia duelako, Bilduren kudeaketa-gaitasunaren adierazgarri.

condicionadas a la aprobación definitiva del expediente de crédito adicional.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

El alcalde manifiesta la importancia de la obra que se saca a licitación de importe muy elevado y que demuestra la capacidad de gestión de Bildu.

6. **2010/10/15eko epaia betetzeko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aldaketa zehatza, HJU 5.1 –Etxeberri-. Alegazioak erantzun eta behin-behineko onarpena proposatu**

Alkateak maiatzaren 24ko hirigintza-batzordearen irizpena aurkeztu dio Osoko Bilkurari, onar dezan. Honako hau proposatzen du:

Lehenik.- EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 689/10 Epaia betetzeko hasierako onarpena eman zitzaion HAPNa aldatzeko dokumentuaren aurka Maria Victoria, Ignacio, Jesus Maria, Javier eta Maria Nieves Roa Aguirrek aurkeztutako alegazioak ezestea.

Bigarren.- HAPNa aldatzeko dokumentuari behin-behineko onarpena ematea, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 689/10 Epaia betetzeko.

Hirugarren.- Behin-behinean onartutako dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea.

Laugarren.- Erabaki hau Roa Aguirre anai-arrebei jakinaraztea.

6. **Modificación puntual PGOU de Astigarraga, referida a la UEU 5.1 – Etxeberri-, en cumplimiento de la sentencia de 15/10/2010. Contestación de alegaciones y aprobación provisional**

Se somete al Pleno la aprobación del dictamen de la comisión de urbanismo de fecha 24 de mayo en el que se propone:

Primero.- Desestimar las alegaciones presentadas por María Victoria, Ignacio, Jesús María, Javier y María Nieves Roa Aguirre al Documento de Modificación del P.G.O.U., aprobado inicialmente para dar cumplimiento a la Sentencia 689/10 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Segundo.- Aprobar provisionalmente el Documento de Modificación del P.G.O.U. para dar cumplimiento a la Sentencia 689/10 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Tercero.- Remitir el Documento aprobado provisionalmente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Cuarto.- Notificar el presente acuerdo a los hermanos Roa Aguirre.



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

7. Arkitekto-lanpostua:2012ko plantilla eta lanpostu-zerrenda aldatzea.

7. Puesto arquitecto: Modificación de la plantilla y RPT 2012

Alkateak maiatzaren 30eko pertsonal-batzordearen irizpena aurkeztu dio Osoko Bilkurari, onar dezan. Honako hau proposatzen du:

Se somete al Pleno la aprobación del dictamen de la comisión de personal de fecha 30 de mayo en el que se propone:

2012ko plantilla eta lanpostu-zerrenda aldatzea, hain zuzen, arkitektoaren lanpostuan *Destino Osagarria* 24tik 28ra pasatuaz.

Modificar la plantilla y RPT 2012 en lo relativo al puesto de Arquitecto en el complemento de destino, pasando de un 24 a 28.

Zorione Etxezarraga zinegotziak zera adierazi du, haren taldeak, EAJ/PNVk alegia, batzordeari aurkeztutako idazkariaren kontrako txostena aztertu duela, baita alkateak idazkariari eskatutako txosten osagarria aztertu ere, aurrekoa pixka bat makillatu duena, eta, horrenbestez, proposamenaren kontra bozkatuko dutela; izan ere, haien esanetan, martxoaren osoko bilkuran aurrekontuak onartzean, lanpostu-zerrenda ere onartu zen, eta une horretan inork ez zuen horrelakorik aipatu.

Interviente la concejal Zorione Etxezarraga señalando que su grupo EAJ/PNV, que a la vista del informe desfavorable del secretario presentado en la comisión y analizado el informe complementario solicitado por la Alcaldía al secretario, que maquilla un tanto el informe emitido, van a votar en contra de la propuesta; continua señalando que con la aprobación de los presupuestos en el pleno de marzo se aprobó también la RPTa y en ese momento no se planteó nada de esto.

Alkateak zera adierazi du, Bilduren ustez, proposamena onar daitekeela, hirigintza-arduradunak, alkateak kasu honetan, hirigintzako langile kopurua aldatzea justifikazio egokia dela uste duelako. Nolanahi ere, alkateak zera adierazi du, erabaki hori gorabehera, hirigintzan joan den urtean baino gutxiago gastatuko dugula.

El alcalde manifiesta que la opinión de Bildu en relación a este tema es que se puede aprobar la propuesta dado que el responsable de urbanismo, en este caso el alcalde, entiende que la variación del número de efectivos en urbanismo los justifica. No obstante, el alcalde manifiesta que en urbanismo seguiremos gastando menos que el año pasado, a pesar de este acuerdo.

Irizpena bozkatu ondoren, onartu egin da Bilduren aldeko 6 botorekin eta kontrako 4

Sometido a votación el dictamen es



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2).

aprobado con 6 votos a favor de Bildu, y 4 en contra (2 EAJ/PNV, 2H1)

7. Moziua: Nabarralde

Agin Rezabal zinegotziak Nabarralde moziua irakurri du; bertan honako hau proposatzen da:

1. Gaur egungo nazioarteko testuinguruan, etorkizuna askatasunaren gainean eraiki nahi dugu, aspaldi-aspaldi kendu ziguten Euskal Herriko nazionalitatea berreskuratuz.
2. Horregatik, herritarrei, udalbatzei eta gizarte-arloko eta mota guztietako erakundeei eskatzen diegu *1512-2012 Nafarroa Bizirik* herri-ekimenaren intsignia ongi ikusteko moduko toki batean jar dezatela.
3. Elkarteei, sozietatei, udalei eta gainerako erakundeei manifestuarekin eta ekainaren 16ko *Euskal Herriko martxa nazionalarekin*, banaka eta taldeka, bat egin dezatela eskatzen diegu, halaber. Eta batez ere, 2012ko uztailaren 25ean, nafar bandera haga erdian jar dezatela, edota xingola beltz batez hornitua, egun horretan 500 urte betetzen baitira Albako dukearen agindupeko soldaduak Nafarroako hiribidean sartu zirenela.

Alkateak adierazi du mozioren aldeko botoa eman behar dutela.

Zorione Etxezarragak zera adierazi du, abstenitu egingo direla ez dutelako bat egiten moziok bildutako hausnarketa historikoaren hitzez hitzeko edukiarekin.

Moziua bozkatu ondoren, onartu egin da Bilduren aldeko 6 botorekin eta kontrako 4 botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2).

7. Moción: Nabarralde

El concejal Agin Rezabal da lectura a la moción Nabarralde, en la que se propone:

1. Dentro del contexto internacional actual, un futuro en libertad con la nacionalidad navarra de la que fuimos desposeídas/os hace ya demasiado tiempo.
2. Reclamamos a la población, a las corporaciones municipales y demás entidades sociales y de todo tipo, la colocación de la insignia de la *Iniciativa Popular 1512-2012 Nafarroa Bizirik* en un lugar visible.
3. Solicitamos la adhesión personal y colectiva, de agrupaciones, sociedades, ayuntamientos y demás instituciones al presente Manifiesto y a la *Marcha Nacional Navarra* del 16 de junio. Y específicamente, que hagan ondear con crespón negro o icen a media asta la bandera navarra el día 25 de julio de 2012, fecha del 500º aniversario de la entrada de las tropas bajo el mando del Duque de Alba en la capital navarra.

Interviene el alcalde indicando que van a votar a favor de la moción .

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga quien señala que se van a abstener dado que no están literalmente de acuerdo con la reflexión histórica que recoge la moción

Sometida a votación la moción es aprobada con 6 votos a favor de Bildu, 4 abstenciones (2 EAJ/PNV, 2 H1).



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

8. Mozioa: Astigarraga Zero Zabor

Astigarraga Zero Zaborreko bi ordezkariak mozioa aurkeztu eta irakurri dute:

Europako parlamentuak maiatzaren 25ean onarturiko txostenak (479 boto txostenaren alde, 66 kontra eta 63 abstentzio) 2020rako hondakin zabortegeiak kendu eta birzikla daitezkeen materialen erraustearekin amaitzeko eskatu du. Hau guztia, baliabide naturalen erabilera eraginkorragoa eta ingurugiroa babesteko intentzioarekin.

Europako parlamentuaren ustez, produktuen diseinu egokiagoak industriaren eta kontsumitzaileen onerako izango dira. Horregatik eskatzen dio Komizioari handitu dezala diseinu ekologikoaren inguruko direktibaren aplikazio-eremua, energiarekin erlazionatuta ez dauden produktuak sartzeko. Ondasunen iraunkortasunean hobekuntzak exijitu eta horien birziklatze, konpontze eta berrerabilpenaren aukerak irekitzeko ere eskatzen du Parlamentuak. Bestalde, produktuen etiketek bi informazio mota azaldu beharko dituzte: produktuen erabilpena eta ingurumenari zer nola eragingo dion.

Europako Parlamentuak eta Komizioak anbizio handiko egitasmoak jarri dituzte martxan ondasunen erabilera hobea egin nahian. Estatuak hartu behar dute orain lekukoa. Hazkunde ekonomikoa, lanpostuak sortzea eta ingurugiroaren zaintza hobea ekarriko lituzke txosten honen aplikazioak.

Eurokamarak estatu kideei eskatzen die ingurugiro-fiskalitatearen alde egitea.

8. Moción: Astigarraga Zero Zabor

2 miembros representantes de Astigarraga Zero Zabor dan lectura a la moción presentada:

El informe aprobado el 25 de mayo por el Parlamento Europeo con 479 votos a favor, 66 en contra y 63 abstenciones, solicita la desaparición de los vertederos de residuos y de la incineración de materiales reciclables para el año 2020. Todo ello con la intención de realizar una utilización más efectiva de los recursos naturales y de preservar el medio ambiente.

En opinión del Parlamento Europeo un diseño más adecuado de los productos redundará en beneficio de la industria y de los consumidores. Por ello solicita a la Comisión la ampliación del ámbito de aplicación de la directiva relativa al diseño ecológico, incluyendo los productos no relacionados con la energía. El Parlamento solicita, asimismo, el establecimiento de mejoras en la sostenibilidad de los bienes, así como la ampliación de las posibilidades de reciclaje, reparación y reutilización de los mismos. Por otra parte, las etiquetas de los productos deberán indicar tanto la utilidad de los productos como su impacto en el medio ambiente.

El Parlamento Europeo y la Comisión Europea han puesto en marcha proyectos muy ambiciosos en un intento de impulsar una mejor utilización de los bienes. Ahora son los estados quienes deben recoger el testigo. La aplicación de ese informe traería consigo el consiguiente crecimiento económico, la creación de puestos de trabajo y diversas mejoras en la preservación del medio ambiente.

La Eurocámara solicita a los estados miembros un posicionamiento favorable a la fiscalidad medioambiental. Para



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzaitza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Horren bidez, errentaren inguruko zergak txikitu, lehiakortasuna handitu eta garapen teknologikoari ateak irekitzeko. Merkatuko hutsuneak bete eta berrikuntza sustatzeko, bigarren mailako materialen gaineko murriztutako BEZa aplikatu daiteke.

posibilitar una disminución de los impuestos sobre la renta, un incremento de la competitividad y un impulso al desarrollo tecnológico. Para llenar los vacíos del mercado e impulsar la innovación, se podría aplicar un IVA reducido sobre los materiales de segundo orden.

Diputatuek gobernu komunitarioari eta gobernu nazionaleri deia ere egiten diete Ingurugiroaren kalterako diren dirulaguntzak 2020a baino lehen kentzeko.

Los diputados quieren realizar también un llamamiento al gobierno comunitario y a los gobiernos nacionales para que antes de 2020 retiren las subvenciones que resulten perjudiciales para el medio ambiente.

Bide horretan, bi gauza eskatzen dizkio komisiolari: sektore publikoari kontratazio ekologikoa egiteko baldintzak indartzeko batetik, eta bestetik, Europar Batasunak finantzatutako proiektuak baldintza horietara lotetsi daitezkeen aztertzeko.

En ese sentido, solicita de la comisión, por una parte, que refuerce las condiciones para la contratación ecológica al sector público, y, por otra, que analice si los proyectos financiados por la Unión Europea pueden cumplir esas condiciones.

Elikadura, etxebizitza eta mugikortasunaren inguruan talde bereziak sortzeko ere eskatzen du Europako Parlamentuak, baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko egitasmoak bultzatzeko.

El Parlamento Europeo solicita asimismo la creación de grupos especiales en materia de alimentación, vivienda y movilidad, que impulsen proyectos de utilización efectiva de los recursos.

Osoko bilkurak erabakitzeko, honako akordioa proposatu nahi du Astigarraga Zero Zabor taldeak:

El colectivo Astigarraga Zero Zabor desea proponer al Pleno el siguiente acuerdo, para su aprobación:

LEHENENGO.- Gipuzkoako instituzioei eskatzea, bereziki Astigarragako Udaletxeari, Europako Parlamentuak onartutako txosten hori bere gain hartu dezala eta txostenean aipatzen diren neurriak aplikatzen has dadila.

PRIMERO.- Solicitamos a las instituciones de Gipuzkoa, y muy especialmente al ayuntamiento de Astigarraga, su adhesión al mencionado informe aprobado por el Parlamento Europeo, así como el inicio de la aplicación de las medidas recogidas en dicho informe.

BIGARREN.- Jatorritik egindako hondakin bilketa selektiboaren bitartez, %80ko birziklapen tasara iritsi gaitzke eta balio kalorifiko nuloa duen errefusa bakarrik geratuko litzateke birziklatu gabe. Horren ondorioz, ez da beharrezkoa gipuzkoar guztiak hipotekatzea 500 milioi euro

SEGUNDO.- A través de la recogida selectiva de residuos en origen, podemos alcanzar una tasa de reciclaje del 80%, quedando sin reciclar exclusivamente el material de rechazo con valor calorífico nulo. Por tanto, no vemos necesario que todos los guipuzcoanos deban hipotecarse



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

baino gehiagoko kostua izango duen errauste planta batekin.

con una planta incineradora que tendrá un coste superior a los 500 millones de euros.

HIRUGARREN.- Bizilagunen artean berrerabilpena, hondakinen sailkatze egokia, autokonposta eta erosteko ohitura egokiak sustatu behar ditugu. Gaur egungo eredu kontsumista agortutzat jo behar dugu ondasunak erosi, erabili eta zaborretara botatzeko garaian, eta denon artean "zero zabor" herri ereduaren alde egin behar dugu lan.

TERCERO.- Debemos impulsar entre nuestros vecinos la reutilización, la clasificación adecuada de los residuos, el autocompostaje y la adopción de hábitos apropiados de compra. A la hora de comprar, utilizar y desechar bienes debemos considerar que nuestro actual modelo consumista está acabado, y todos debemos impulsar el modelo popular "basura cero".

LAUGARREN.- Alderdi politikoei eskatzea uzteko hondakinen gaia modu partidista eta elektoralean erabiltzeari, ez delako ulergarria Europako Parlamentuan modu batera eta Gipuzkoan beste modu batean jokatzeko. Era berean, elkarrekin lan egiteko deia ere bai, Astigarraga jasangarriago bat lortzeko, hori izango baita datozen belaunaldiei herentzian utziko dieguna.

CUARTO.- Solicitamos a los partidos políticos que dejen de utilizar el tema de los residuos de un modo partidista y electoral, ya que resulta difícilmente comprensible que sigan criterios diferentes en el Parlamento Europeo y en Gipuzkoa. Asimismo les solicitamos que trabajen conjuntamente con el objetivo de lograr una Astigarraga más sostenible, que será la mejor herencia posible para las generaciones venideras.

BOSGARREN.- Ekainaren 17an, Saguesen eta "AIRE GARBIAK" lemapean egingo den mosaikoan parte hartzeko deia egitea Udaletxeari eta astigartar guztiei. Gipuzkoan zero zabor politikaren aldeko apustua egin duten herri guztiek bultzatu dute ekimen hau Zubietan errauskailua egin ez dadin exijitzeko.

QUINTO.- Emplazamos al ayuntamiento y a todos los astigarragatarras a participar, el 17 de junio, en el mosaico que se realizará en Sagüés bajo el lema de "AIRE GARBIAK". Todas las localidades que han apostado por una política favorable a la basura cero en Gipuzkoa han impulsado la iniciativa, para exigir la ratirada del proyecto de construcción de una incineradora en Zubieta.

SEIGARREN.- Gaur 479 arrazoi gehiago dauzkagu ozen esateko: **ERRAUSKETARIK EZ!!!** Ez Zubietan ez inon.

SEXTO.- Hoy disponemos de 479 razones más para exclamar: **i NO A LAS INCINERADORAS!!!** Ni en Zubieta ni en ningún sitio.

Zorione Etxezarraga zinegotziak mozioaren 1. puntua ebidentzia bat dela adierazi du. 2. puntuarekin ez dago ados, ordea, haren iritziz gaikako bilketaren tasa gehienez % 64 izango litzatekeelako, mozioak % 80 aipatzen badu ere, eta, hortaz, gainerako % 36ari irtenbide bat

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga quien manifiesta que el punto 1 de la moción es una evidencia, que no están de acuerdo con el punto 2º, dado que la tasa de recogida selectiva en su opinión no superaría el 64%, y la moción habla del 80%, de modo que en su opinión al restante 36% habrá que



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

eman beharko litzaiokeela erantsi du. Azkenik, 4. puntuari dagokionez, zera adierazi du, prozesua konponduta zegoela baina erabaki politiko bati jarraiki aldatu dela, orain ez delako onartutako foru-araua onartu nahi.

Adierazi du 5.puntua lehenengo puntuarekin kontraesanean dagoela eta azaldutako kontuan harturik, kontra bozkatuko dutela.

Alkateak zera erantzun dio, bilketa-sistema eta birziklatze-tasa lotuta doazela. Haien gaikako bilketa-sistemak, aldiz, % 30 baino ez duela aurreikusten ere esan dio, eta hortaz ondoriozko birziklatzea betiere oso txikia izango litzatekeela.

Imanol Lizarralde zera erantzun dio alkateari, Gipuzkoan haien sistema ez dela nagusituko, gehienez ere 34 herri txikitan eramango dutela aurrera, bai, baina Donostiak eta beste hainbat udalerrik ez dutela ezarriko; gainera, zera ekarri du gogora, ingurumeneko diputatuak oraindik ez duela esan zaborteziak itxiko direnik.

Jarraian, gai horren inguruko eskumen-sistemari buruzko eztabaida sortu da, eta alkateak adierazi du zaborrak tratatzeko eskumena udalarena dela, eta udala izango dela gai horretaz arduratzen jarraituko duena.

Europak erraustegien funtzionamenduari 2020rako ezarritako epemugaren inguruan eztabaidatu da, eta Bilduk adierazi du epemuga hori aintzat hartuta tamaina horretako obra bat egiteak ez lukeela zentzurik izango; Raul zinegotziak, berriz, zera adierazi du, zaborra jatorrian ongi bereiztea dela funtsezkoena.

Eztabaidarekin aurrera jarraitu dute, errausketa versus balorizazioa ardatz hartuta.

darle una salida; con el tercer punto de acuerdo; en relación al punto 4º señala que el proceso que estaba arreglado se ha modificado por acuerdo político, y no se acepta ahora la norma foral aprobada.

Señala que el punto 5 está en contradicción con el punto 1 y que por todo lo manifestado van a votar en contra.

Interviene el alcalde señalando que el sistema de recogida y la tasa de reciclaje van unidas. En vuestro caso con un 30% solo que se prevee en vuestro sistema de recogida selectiva, el reciclaje resultante siempre será muy bajo.

Interviene el concejal Imanol Lizarralde quien señala que en Gipuzkoa no se impondrá vuestro sistema, 34 pueblos pequeños lo llevarán a efecto, pero ayuntamientos como Donostia y otros no lo implantarán y recuerda que el diputado de medio ambiente no ha dicho que los vertederos se vayan a cerrar.

A continuación se sucede un debate en relación al sistema de competencias en relación a esta materia, indicando el alcalde que el tratamiento de la basura es del Ayuntamiento y que este ayuntamiento va a seguir con el tema.

Se debate en relación al horizonte hasta 2020 que permite Europa el funcionamiento de las incineradoras, cuestionando Bildu que con ese plazo temporal no tiene sentido ejecutar semejante obra, señalando el concejal Raul que lo importante es la buena separación en origen.

Finalmente se desarrolla un debate entorno a la incineración versus valorización.



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Jarraian, aurkeztutako mozioa bozkatzeko eskatu du alkateak, eta mozioa onartu da, Bilduren aldeko 6 botorekin eta kontrako 4 botorekin (2 EAJ/PNV, 2H!)

A continuación somete el alcalde a votación la moción presentada siendo aprobada con 6 votos a favor de Bildu y 4 votos en contra (2 EAJ/PNV, 2H!)

9. Informazio, eskariak eta galderak

Bixente Arrizabalaga zinegotziak adierazi du Mikel Zabalarri ordainagiria igorri zaiola itzultzeagatik erreklamaturako zenbatekoa ordaintzeko, eta horrek diru-sarrera handiagoa ekarriko ote duen galdetu du.

Idazkariak baietz erantzun dio, hau da, udalari onartu beharko zaizkiola ordainagirian jasotako zenbatekoari dagozkion eskubideak.

9. Información, ruegos y preguntas

El concejal Bixente Arrizabalaga indica que se ha remitido a Mikel Zabala el recibo para el abono del importe reclamado por la acción de regreso y pregunta si ello implicará un mayor ingreso.

Contesta el secretario que efectivamente procederá el reconocimiento de derechos para el ayuntamiento por el importe fijado en el recibo.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2012ko ekainaren 1ean

Xabin Olaizola Lasa
Idazkaria